EUSKALMET EUSKAL METEOROLOGIA AGENTZIAKO S.A. 1. MAILAKO ADITUEN LAN-POLTSA BAT OSATZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1. - DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A. sozietatean bi (2) lanpostu betetzea hautaketa-sistema gisa oposizio-lehiaketa erabiliz, ordezkapeneko lan-kontratuaren araubidean, eta lan-poltsa bat sortzea, honako baldintza hauen arabera:

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- **Erreferentziazko profila:** 1. mailako aditua.
- **Ordainsari-maila:** Administrazio publikoaren 22. maila/kategoriaren baliokidea, urtean 49.000 € gordin ingurukoa.
- **Eskatutako titulazioa:** Unibertsitateko lizentziatura, gradua edo horren baliokidea den masterra Zientzien arloan (Fisika, Matematika, Lurraren Zientziak eta abar) edo antzeko ingeniaritza-arloetan.
- **Eginkizunak:** Sozietatearen jarduera operatiboaren eta I+G+b arloaren muinari lotutako espezializazio tekniko eta zientifiko handiko eginkizunak (Klima, Iragarpena, Zaintza, Modelizazioa, Behaketa-sistemak eta abar).
- **Lanaldia:** Lanpostua, parte hartzen den proiektuen beharren arabera, ordutegi-malgutasunaren eta erabilgarritasunaren mende egon daiteke, Euskalmeten txanda-sistemaren barruan.
- **Lanpostuaren kokalekua:** Vitoria-Gasteiz.

BETEKIZUNAK:

1. Titulazio akademikoa: Zientzien arloko (Fisika, Matematika, Lurraren Zientziak eta abar) edo antzeko ingeniaritza-arloetako goi-mailako unibertsitate-titulazio ofiziala (lizentziatura, gradua edo horren baliokidea den unibertsitate-masterra) izatea.

- 2. Hizkuntza-betekizunak:

- Euskara: Gutxienez B2 maila egiaztatzea ziurtagiri ofizial baten bidez edo, halakorik ezean, hautatutako aholkularitza-enpresak hautaketa-prozesuan zehar zehaztuko duen maila teknikoari buruzko berariazko proba gainditzea.

- Ingelesa: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (EEMB) gutxienez B2 maila egiaztatzea ziurtagiri ofizial baten bidez edo, halakorik ezean, hautatutako aholkularitza-enpresak hautaketa-prozesuan zehar zehaztuko duen maila teknikoari buruzko berariazko proba gainditzea.

- 3. Eskatutako esperientzia teknikoa:

Ikerketa- edo jarduera operatiboko esperientzia.

- Ikerketa-esperientzia: Frogatu beharreko ikerketa-esperientzia izatea, unibertsitateko praktikak edo ikerketa-bekak barne, Lurraren Zientziekin lotutako arloetan, datuen analisia eta modelizazioa (estatistikoa, numerikoa, AA-ML, etab.) barne, edo arlo zientifikoetako edo ingeniaritzako (geozientziak) proiektu teknikoen garapenean.

- Jarduera operatiboko esperientzia: Frogatu beharreko esperientzia izatea ekoizpeneko ingurune operatibo teknikoetan, zaintzan, denbora errealeko datuen kudeaketan edo komunikabideetan.

KONTRATAZIO-MODALITATEAK ETA LANPOSTUEN ESLEIPENA

Deialdi honetan eskainitako bi (2) lanpostuak aldi baterako ordezkapeneko lan-kontratuaren modalitatearen bidez formalizatuko dira (Langileen Estatutuaren 15.3 artikuluarekin bat etorriz), honela banatuta:

- **Ordezkapenetarako lan-poltsa:** Hautaketa-prozesuaren nahitaezko faseak gainditzen dituzten, 18. oinarrian ezarritakoa betetzen duten eta A erreferentziako edo B erreferentziako lanpostuak esleitzen ez zaizkien hautagaiak lan-poltsa batean sartuko dira, azken puntuazioaren araberako hurrenkeran. Lan-poltsa hori Euskalmet S.A.n etorkizunean sor daitezkeen aldi baterako ordezkapenetarako erabiliko da, lanpostu hutsak, bajak edo lanaldi-murrizketa berriak betetzeko, lanbide-talde eta ordainsari-maila berean.

Hautaketa-prozesu hau merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioetan eta egokitasun-irizpideetan oinarrituta egingo da, publizitatea eta lehia bermatuz.

Deialdia publikoa eta irekia da, eta hautaketa-prozesua LKS Next langileak hautatzeko enpresak kudeatuko du, dokumentu honetan jasotako baldintzei eta berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publizitatearen printzipioei jarraituz.

Hori guztia gorabehera, kontratatutako pertsonak nahitaez sei hilabeteko probaldia gainditu beharko du.

- **DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

Egintza bakoitza baldintza orokorretan aurreikusitako kanalean argitaratuko da. Horrela, ematen den egintzaren arabera, honako leku honetan argitaratuko da:
- **Web-orrian:** Prozesuari buruzko informazio guztia jasoko da, dagozkion atarietarako sarbidea erraztuz.

2. - BALDINTZA OROKORRAK

2.1 Hautatutako pertsonek lan-kontratua sinatuko dute Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A. sozietatearekin, arlo horretan indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten eskubide eta betebehar guztiekin.
2.2 Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie eta bertan afiliatuko dira lanpostuaz jabetzen diren egunean, aurretik afiliatuta ez badaude.
2.3 Baldintzaren bat ezarri zaien lanpostuei dagokienez, hautagaiek nahitaez bete beharko dituzte baldintza horiek.

Era berean, hautaketa-prozesua gainditu arren puntuazio txikiagoa izateagatik hautatuak izan ez diren hautagaiak Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziaren lan-poltsan sartuko dira, lortutako puntuazioaren araberako hurrenkeran.

Lan-poltsan sartzeko baldintzak eta deialdi-araubidea 18. oinarrian jasota daude

3. - XEDEA

3.1.- XEDEA: 1. mailako adituaren lanpostuko bi (2) plaza betetzea, ordezkapeneko lan-kontratuaren araubidean, eta Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A. sozietaterako 1. mailako adituen lan-poltsa bat sortzea.

4. - HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

4.1- BETEKIZUNAK BETETZEKO DATAK

Izangaiek hurrengo atalean aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta betekizun horiek betetzen jarraitu beharko dute dagokion lan-kontratua formalizatu arte, hizkuntza-eskakizunen kasuan izan ezik; azken kasu horretan, 6.4 oinarrian xedatutakoa beteko da.

4.2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Baldintza orokorrak dira oposizio-lehiaketa honen bidez deitutako hautaketa-probetan onartua izateko bete beharreko betekizunak. Betekizun orokorrak eta berariazkoak, nolanahi ere, baztertzaileak dira.

BETEKIZUN OROKORRAK

4.2.1 Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz langileen joan-etorri askerako eskubidea aplikatzekoa zaion beste estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude; era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, betiere bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak edo adin horretatik gorako mendekoak badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan sartzen ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute, Espainiako Estatuan legezko bizilekua badute. Hautatuak izanez gero, kontratua formalizatu aurretik kontratuaren xede den jarduera gauzatzeko administrazio-baimena izan beharko dute.

4.2.2 Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

4.2.3 Hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adin gorena ez gainditzea.

4.2.4 Eskatutako titulazioa izatea edo titulua emateko dagozkion eskubideak ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, titulazioaren homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan beharko da.

4.2.5 Diziplina-espediente baten bidez Administrazio Publikoetako edozeinen zerbitzutik bereizia edo kaleratua ez izatea, eta enplegu edo kargu publikoak betetzeko erabateko edo berariazko desgaikuntzarik ez izatea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan Funtzio Publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor-epairik ez izatea.

4.2.6 Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-arrazoi legalen batean sartuta ez egotea, araudi horrek ematen dion aukeratzeko eskubidea salbu.

4.2.7 Aurkezten den kategoriari dagokion eskabidea aurkeztu izana.

4.2.8 Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko nahiz psikikorik ez izatea. Gaitasun fisikoa eta psikikoa, hautaketa-prozesua gainditu ondoren, ziurtagiriaren bidez eta/edo mediku-azterketaren bidez egiaztatuko dira, 15.1.e oinarrian xedatutakoaren arabera. Lan-harremana hasteko, betekizun hori betetzea ezinbestekoa izango da.

4.2.9 B motako gidabaimena izatea, mugitzeko gaitasuna eta erabilgarritasuna izanik.

BERARIAZKO BETEKIZUNAK

4.2.10 Titulazio akademikoa: Zientzien arloko (Fisika, Matematika, Lurraren Zientziak eta abar) edo antzeko ingeniaritza-arloetako goi-mailako unibertsitate-titulazio ofiziala (lizentziatura, gradua edo horren baliokidea den unibertsitate-masterra) izatea.

4.2.11 Hizkuntza-betekizunak:

Euskara: Gutxienez B2 maila egiaztatzea ziurtagiri ofizial baten bidez edo, halakorik ezean, hautaketa-prozesuan zehar hautatutako aholkularitza-enpresak zehaztuko duen maila teknikoari buruzko berariazko proba gainditzea.

Ingelesa: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (EEMB) gutxienez B2 maila egiaztatzea ziurtagiri ofizial baten bidez edo, halakorik ezean, hautaketa-prozesuan zehar hautatutako aholkularitza-enpresak zehaztuko duen maila teknikoari buruzko berariazko proba gainditzea.

4.2.12 Eskatutako esperientzia teknikoa:

Ikerketa- edo jarduera operatiboko esperientzia.

Lurraren Zientziekin lotutako arloetan frogatu beharreko ikerketa-esperientzia izatea, unibertsitateko praktikaldiak edo ikerketa-bekak barne, datuen analisia eta modelizazioa (estatistikoa, numerikoa, AA-ML, etab.) barne hartuta, edo arlo zientifikoetako edo ingeniaritzako (geozientziak) proiektu teknikoen garapenean esperientzia izatea.

Frogatu beharreko jarduera operatiboko esperientzia izatea, ekoizpeneko ingurune operatibo teknikoetan, zaintzan, denbora errealeko datuen kudeaketan edo komunikabideetan.

5. - ESKABIDEAK AURKEZTEA

5.1.- HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTZEA.
Deialdi honetako hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera. Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, izangaiek honako hauek bete beharko dituzte:

- Eskabidea betetzea, 5.4 oinarrian (Eskabidearen edukia) xedatutakoaren arabera.
- Eskabidea ezarritako epearen barruan aurkeztea.
- Hizkuntza-betekizunen ezagutzari dagokionez, 6. oinarrian ezarritakoa beteko da.
- Gainera, adierazi beharko dute epea amaitzen den egunean eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ingelesaren eta euskararen ezagutza-mailari dagokionez izan ezik; azken kasu horretan, 6. oinarrian xedatutakoa beteko da.

5.2.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.
Oinarri hauetatik eratorritako deialdi espezifikoan parte hartu nahi duten pertsonek hamahiru (13) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute eskabidea, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.3.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztu beharko dira (I. eranskina).

Era berean, eskabidea bide telematikoz aurkeztu ahal izango da, hautaketaeuskalmet@lksnext.com helbide elektronikoaren bidez. Horretarako, eskabidea eta eskatutako dokumentuak helbide elektroniko horretara bidali beharko dira, gaian «EXPERTOS/AS NIVEL 1» adierazita.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar hautagaiak deialdi honetako oinarriak onartzea. Hautaketa-prozesuan zehar sor daitekeen edozein gorabehera, kontsulta, alegazio edo zuzenketa egiteko, hautaketaeuskalmet@lksnext.com kontsulta-kanalera jo ahal izango da, betiere oinarrietan aurreikusitako epeak eta arauak errespetatuz.

5.4.- ESKABIDEAREN EDUKIA.

Eskabidearen honako atal hauek bete beharko dira:

5.4.1 Dokumentua 1. Eskabidea: Eskabide-inprimakia. Bertan adierazi beharko da hautagaiak deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela (eskabide-eredua oinarri hauen I. eranskinean egongo da eskuragarri).

5.4.2 Aipatutako inprimakiarekin batera, curriculum vitae eguneratua aurkeztu beharko da.

5.4.3 Prozesua behar bezala kudeatzeko eskatzen diren datu pertsonalak. Horretarako, NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia aurkeztu beharko da.

5.4.4 Oposizio-faseko ariketak egiteko aukeratutako hizkuntza ofiziala, euskara edo gaztelania. Atal honetan ezer adierazten ez bada, probak gaztelaniaz egin nahi direla ulertuko da.

5.4.5 Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazio ofizialaren kopia.

- Eskatutako titulazio akademiko ofizialaren kopia.
- Eskatutako esperientzia teknikoaren egiaztagiriaren kopia.
- Euskarako B2 hizkuntza-eskakizunaren eta ingeleseko B2 mailaren titulu ofizialen kopia.

5.4.6 Merezimenduak baloratzeko ziurtagiriak, 12.2 oinarrian (Lehiaketa-fasea) ezarritakoaren arabera.

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi horren erabilera hautaketa-prozesua kudeatzera eta aldi baterako langileak kontratatzeko sortzen diren lan-poltsak kudeatzera mugatuko da. Fitxategi horien erabilera honako arau hauetan xedatutakoari egokituko zaio: abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

Fitxategi horren arduraduna Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendaria izango da.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Datu faltsuak aurkezten dituzten hautagaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

6. - HIZKUNTZA ERAKISKUNA

Dagokion egiaztagiririk izan ez arren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek hala adierazi beharko dute eskabidean. Eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazten ez dutenek ez dute proba horietan parte hartzeko aukerarik izango. Eskatzen den lanpostuari dagokion maila-egiaztapeneko azterketa egitea eskatu ahal izango da.

Euskarako B2 hizkuntza-eskakizuna eskatzen da.

Ingeleseko B2 hizkuntza-eskakizuna eskatzen da.

7. - PROBEN EGOKITZAPENAK

7.1.- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO PROBEN EGOKITZAPENA.

Desgaitasun aitortua izateagatik probetan egokitzapenak egiteko eskubidea duten pertsonek eskabidearen oharren atalean adierazi beharko dute, eta Euskalmeti idatziz jakinarazi beharko diote, desgaitasun mota eta eskatutako egokitzapena zehaztuz. Eskabide hori idatzizko proba egin baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago bidali beharko da.

Epaimahaiak hautaketa-probak egiteko beharrezkoak diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo ditu. Nolanahi ere, egokitzapen horiek ezin izango dute proben edukia desitxuratu, ezta eskatu beharreko gaitasun-maila murriztu ere, honako arau honetan ezarritakoarekin bat etorriz: ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Agindua, enplegu publikoa eskuratzeko hautaketa-prozesuetan desgaitasuna duten pertsonei denbora gehigarria emateko irizpide orokorrak arautzen dituena.

7.2.- AMATASUNAGATIKO EGOKITZAPENAK.

Haurdunaldian edo edoskitzaroan dauden pertsonek ere egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte, eta horren berri idatziz eman beharko diote Euskalmeti, proba egin baino gutxienez 10 egun baliodun lehenago.

8.- EPAIMAHAILA KALIFIKATZEA

8.1.- OSAERA.

Erreferentziazko epaimahai bakarra egongo da. Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak izendatutako batzorde espezifiko bat eratuko da.

9.- EGINTZEN ARGITALPENA:

Azterketa-deialdiak eta hautaketa-prozesuaren gainerako jakinarazpen-egintzak www.euskalmet.euskadi.eus webgunean argitaratuko dira.

10.- IZANGAIEN ONARPENA

Epaimahaia eratu ondoren, kideek izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko dute, deialdian parte hartzeko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda egingo dute.

Ondoren, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendariak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratzeko aginduko du. Baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

Hautaketa-prozesutik kanpo geratzen direnek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai eta antzemandako akatsak zuzendu ere, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo

hiru (3) egun balioduneko epean. Prozesura hautagai bakarra aurkezten bada eta hautagai hori onartua bada, ez dira emango erreklamazioa aurkezteko hiru (3) egunak, arintasun-printzipioa errespetatuz eta, hala, epe hori igaro arte itxaron gabe dagozkion izapideekin aurrera egin ahal izateko.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Hautaketa Batzordeak arrazoituta onartu edo ezetsiko ditu, eta zerrenda berriro argitaratuko da.

11.- HAUTAKETA-PROZESUA

11.1 Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendariak argitaratzeko aginduko du www.euskalmet.euskadi.eus webgunean.

11.2 Hautaketa-prozesuan onartutako izangaiek hautaketa-probetan parte hartu ahal izango dute. Era berean, baztertuak izan diren baina baztertzearen aurkako erreklamazioa Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.ko Zuzendaritzan aurkeztu duten izangaiek ere probak egin ahal izango dituzte, kautelaz eta ematen den ebazpenaren baldintzapean, baldin eta erreklamazioa oraindik ebatzi gabe badago. Erreklamazioa ezesten bada, egindako probak ondoriorik gabe geratuko dira.

11.3 Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ere zehaztuko dira.

11.4 Hurrengo probetarako deialdien iragarkiak webgunean argitaratuko dira, gutxienez hamar egun balioduneko aurrerapenarekin.

11.5 Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdia egingo zaie, deialdi bakarrean, aparteko deialdietan aurreikusitakoa salbu. Epaimahaiak zehaztutako egun, ordu eta lekuetan nahitaezko probetara agertzen ez direnak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Gauza bera gertatuko da nahitaezko probak egiten hasi ondoren bertaratzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badituzte, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu iristea aurkeztu ez izanaren parekotzat joko da.

11.6 Lehiakideek nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena izan beharko dute, eta edozein unetan eskatu ahal izango zaie. Era berean, proba bakoitzerako epaimahaiak ezarritako materialak eraman beharko dituzte.

11.7 Probaren bat gainditu ez duten eta oraindik ebatzi gabeko erreklamazioa aurkeztu duten izangaiek hurrengo probak egin ahal izango dituzte kautelaz, ematen den ebazpenaren baldintzapean.

11.8 Proba egiteko eguna baino gehienez 15 egun lehenago erditu diren hautagaientzat aparteko deialdia egingo da. Epaimahaiak aparteko deialdia egin beharko die hautagai horiei. Proba ezin izango da egin deialdia egin eta hurrengo 15 egun baliodunak igaro baino lehen, ezta deialdia egin eta hurrengo 40 egun baliodunak igaro ondoren ere. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, beharrezkoak diren egokitzapen pertsonalak kontuan hartuta.

11.9 Izangaiek ezin izango dute epaimahaikideengana jo hautaketa-prozesuarekin lotutako gaiak zuzenean edo hirugarrenen bidez aztertzeko. Hautaketa-prozesuari buruz sor daitezkeen zalantza guztiak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiari, eta hark, kide anitzeko organo gisa, dagokiona erabakiko du.

11.10 Gailu elektronikoak epaimahaikideek baimendutako kasuetan soilik erabili ahal

izango dira.

11.11 Hautaketa-prozesuan zehar sor daitekeen edozein gorabehera, kontsulta, alegazio edo zuzenketa egiteko, honako kontsulta-kanal honetara jo ahal izango da: hautaketaeuskalmet@lksnext.com. Kontuan izan aldez aurretik prozedurari buruzko gaiak baino ez direla erantzungo; gaiaren funtsari buruzkoak, berriz, prozesuaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera aztertuko dira.

12. - HAUTAKETA PROZESUA

Jarraian, hautaketa-prozesuaren faseak zehazten dira, aurreikusitako gauzatze-hurrenkeraren arabera.

Hautaketa-prozesuak bi fase izango ditu: oposizioa eta lehiaketa.

12.1. fasea: Oposizioa. Gehienez 60 puntu.

Oposizio-faseak gehienez 60 puntu izango ditu, eta bi ebaluazio-bloketan egituratutako lau atalek osatuko dute:

- **1. blokea:** Proba psikoteknikoak eta talde-dinamika edo gaitasunen araberako elkarrizketa. Gehieneko puntuazio bateratua: 35 puntu.
- **2. blokea:** Proba praktikoa eta Euskalmetekin egindako gaitasunen araberako elkarrizketa. Gehieneko puntuazio bateratua: 25 puntu.

12.1.1. Proba psikoteknikoak. Gehieneko puntuazioa: 25 puntu.

Bi motatako proba psikoteknikoak egingo dira: gaitasun-proba psikoteknikoak eta nortasun-proba psikoteknikoak.

Gaitasun-proba psikoteknikoak (12,5 puntu): Adimen orokorrarekin, serie logikoekin eta lanpostua betetzeko garrantzitsuak diren hainbat gaitasun eta ahalmenekin lotutako alderdiak ebaluatzeko proba-multzoa.

Nortasun-proba psikoteknikoak (12,5 puntu): Lanpostuari lotutako hainbat lan-ar lotan esanguratsuak diren jokabideekin zerikusia duten lanbide-gaitasunak eta nortasun-ezaugarriak ebaluatzeko probak.

Proba psikoteknikoak nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira, eta horiek gainditzeko gutxieneko puntuazioa ezarriko da.

Atal hau egiten duten izangaien kopurua 25etik gorakoa bada, proba psikotekniko guztien baturako puntuaziorik handienak lortu dituzten hogeita bost izangaiek soilik egingo dute hurrengo atala —talde-dinamika edo gaitasunen araberako elkarrizketa—.

Lehenengo hogeita bost postuetara sartzeko berdinketarik egonez gero, nortasun-proba psikoteknikoan puntuaziorik handiena lortu duen izangaiak izango du lehentasuna.

12.1.2. Talde-dinamika edo gaitasunen araberako elkarrizketa. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Atal honetan parte hartzeko aukera duten izangaiek talde-dinamika batean parte hartuko dute edo, fase honetara igarotako hautagaitzen kopuruaren arabera, banakako gaitasun-elkarrizketa bat egingo dute. Ebaluazioa Euskalmetek hautatutako LKS Next Selection

aholkularitza-enpresak zuzendu eta ebaluatuko du.

Ebaluazio-modalitatea atal honetara igarotzen diren hautagaien kopuruaren arabera zehaztuko da, eta, nolanahi ere, lanposturako zehaztutako lanbide-gaitasunak eta zeharkako gaitasunak ebaluatzeko irizpide berberak aplikatuko direla bermatuko da.

Bai talde-dinamikaren bai gaitasunen araberako elkarrizketaren helburua izango da, behagarriak diren jokabideen bidez, lanpostua behar bezala betetzeko garrantzitsuak diren gaitasunak baloratzea; besteak beste, analisi-gaitasuna, komunikazioa, talde-lana, ekimena, argudiatzeko gaitasuna, entzutea, lankidetza, egokitzeko gaitasuna eta egoerak ebazteko gaitasuna, baina horietara mugatu gabe.

Atal hau nahitaezkoa izango da, eta gehienez 10 punturekin baloratuko da, erabilitako ebaluazio-modalitatea edozein dela ere.

Proba psikoteknikoak eta talde-dinamika edo gaitasunen araberako elkarrizketa egin ondoren, bi ataletan lortutako puntuazioak batuko dira. Bi atal horien gehieneko puntuazio bateratua 35 puntukoa izango da.

Lehenengo bloke hau gainditzeko eta hautaketa-prozesuan aurrera jarraitzeko, gutxienez 17,5 puntuko puntuazio metatua lortu beharko da proba psikoteknikoen eta talde-dinamikaren edo gaitasunen araberako elkarrizketaren artean.

12.1.3. Proba praktikoa. Gehieneko puntuazioa: 15 puntu.

Proba praktikoa nahitaezkoa izango da, eta ez da ezarriko hura gainditzeko gutxieneko banakako puntuaziorik.

Ariketa bakarra izango da, eta deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunei buruzko izaera praktikoko proba bat edo gehiago izan ditzake.

Adibide gisa soilik, eta izaera mugatzailerik gabe, ebaluatuko diren gaiei dagokienez erreferentziazko baliabide batzuk adierazten dira: Meteorologia eta Klimari buruzko ezagutza aplikatuak (atmosferaren fisika, tokiko eskalako iragarpena eta Meteoadversa protokoloak); Datuen Zientzia (serie klimatiko handien tratamendua eta iragazketa); eta Modelizazioa (eredu numeriko eta estatistikoen interpretazioa eta AA-ML metodologien aplikazioa).

Proba praktikoa gehienez 15 punturekin baloratuko da.

Atal honetara igarotzen diren izangaien kopurua 15etik gorakoa bada, proba praktikoan puntuaziorik handienak lortu dituzten hamabost izangaiek soilik egingo dute hurrengo atala —Euskalmetekin gaitasunen araberako elkarrizketa—.

Lehenengo hamabost postuetara sartzeko berdinketarik egonez gero, nortasun-proba psikoteknikoan puntuaziorik handiena lortu duen izangaiak izango du lehentasuna.

12.1.4. Euskalmetekin gaitasunen araberako elkarrizketa. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Elkarrizketa LKS Next Selection aholkularitza-enpresak eta Euskalmetek batera egingo dute.

Elkarrizketan, hautagaiek lanpostura eta erakundera duten egokitasuna ebaluatuko da, honako hauek baloratuz: gaitasun teknikoak, komunikazio-gaitasunak, gaitasun orokorrak eta lanpostua betetzeko garrantzitsuak diren lanbide-jokabideak.

Proba praktikoa eta Euskalmetekin gaitasunen araberako elkarrizketa egin ondoren, bi ataletan lortutako puntuazioak batuko dira. Bi atal horien gehieneko puntuazio bateratua 25 puntukoa izango da.

Bigarren bloke hau gainditzeko, gutxienez 7 puntuko puntuazio metatua lortu beharko da proba praktikoaren eta Euskalmetekin gaitasunen araberako elkarrizketaren artean.

Oposizio-fasearen gehieneko puntuazio osoa 60 puntukoa izango da, fase hori osatzen duten lau ataletan lortutako puntuazioen baturaren emaitza gisa.

12.2. Lehiaketa-fasea. Gehienez 40 puntu izango ditu.

Lehiaketa-faseak ez du baztertzaile izaerarik izango, eta fase horretan lortutako puntuazioak ezin izango dira kontuan hartu probak edo oposizio-fasean ezarritako gutxieneko puntuazioak gainditzeko.

Merezimenduak aldez aurretik adierazi eta egiaztatu beharko dira I. eranskineko Parte hartzeko eskabide-inprimakian, eta dokumentu bidez egiaztatu beharko dira horretarako ezarritako moduan eta epearen barruan.

Merezimenduak izateko eta baloratzeko erreferentzia-data, nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Aholkularitza-enpresak merezimenduen balorazioa egingo du eta emaitzen txostena emango du. Txosten hori izendatutako epaimahaiaren onespenera aurkeztuko da. Emaitzak onartu ondoren, dagokion akta egingo da.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa honela banatuko da:

- Esperientzia gehigarria: **15 puntu.**
- Goi-mailako ikerketa-prestakuntza: **10 puntu.**
- Prestakuntza gehigarria: **5 puntu.**
- Euskararen ezagutza egiaztatzea: **7 puntu.**
- Beste hizkuntza batzuen ezagutza egiaztatzea: **3 puntu.**

12.2.1.- Betekizunak eta merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea.

Parte hartzeko eskabide-inprimakian (I. eranskina) alegatu diren eta oinarri hauetan ezarritako moduan dokumentu bidez egiaztatu diren merezimenduak soilik hartuko dira kontuan.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu ez diren merezimenduak ezingo dira baloratu, geroago egiaztatzen badira ere.

12.2.2.- Epea.

Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko erreferentzia-data, nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

12.2.3.- Erreferentzia-data.

Adierazitako betekizunak betetzeko eta merezimenduak izateko erreferentzia-data prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Atal honetan gehienez 15 puntu lortu ahal izango dira.

Sarbide-betekizun gisa eskatutako gutxieneko esperientzia profesionala gainditzen duen

esperientzia profesionala soilik baloratuko da, hala badagokio, betiere deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunekin eta erantzukizunekin zuzeneko lotura badu.

Lotutako esperientziatzat hartuko dira, besteak beste, I+G+b proiektuetan garatutakoa, iragarpen- eta zaintza operatiboko zereginak, modelizazio-algoritmoen garapena eta aplikazioa, Datuen Zientzia edo Adimen Artifiziala arlo hidro-ozeano-meteorologiko-klimatiko-ingurumenekoan, bai eta arlo horiekin zuzenean lotutako komunikazio- edo dibulgazio-jarduera profesionalak ere.

Esperientzia honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

a) Administrazio Publikoan izandako esperientzia

Azken hamar (10) urteetan Administrazio Publikoko lanpostuetan, deitutako lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko lotura dutenetan, eskuratutako esperientziagatik: 0,5 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

b) Administrazio Publikotik kanpo izandako esperientzia

Azken hamar (10) urteetan Administrazio Publikotik kanpo, deitutako lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko lotura duten lanpostu edo eginkizunetan eskuratutako esperientzia profesionalagatik: 0,5 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko.

Ez dira kontuan hartuko hilabete bat baino gutxiagoko denbora-zatiak.

Esperientzia profesionalari dagokion gehieneko puntuazio bateratua 15 puntukoa izango da, esperientzia sektore publikoan, sektore pribatuan edo bietan eskuratu den kontuan hartu gabe.

Sektore publikoan eta pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, horien egiazkotasuna egiaztatzeko.

12.2.5.- Goi-mailako ikerketa-prestakuntza. Gehienez 10 puntu izango ditu.

Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

10 puntu emango dira Atmosferaren Zientziekin, Meteorologiarekin, Klimatologiarekin, Modelizazioarekin, Datuen Zientziarekin edo lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotutako beste arlo zientifiko batzuekin zerikusi zuzena duen Doktorego-titulu ofiziala (PhD) izateagatik.

Titulazio ofizialak soilik baloratuko dira, edo atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion ofizialtasun-aitorpena edo baliokidetasun-aitorpena dutenak.

12.2.6.- Prestakuntza gehigarria. Gehienez 5 puntu izango ditu.

Atal honetan gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira.

Deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunekin eta eskatutako ezagutzekin zuzeneko lotura duten prestakuntza- eta hobekuntza-jarduerak baloratuko dira.

Atal honetan ezarritako betekizunak betetzen dituen titulu edo prestakuntza-jarduera bakoitzeko gehienez puntu 1 emango da.

Gutxienez 500 orduko iraupena duten prestakuntza-jarduerak soilik baloratuko dira.

Prestakuntza dagokion tituluaren, diplomaren edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Bertan, prestakuntzaren izena, prestakuntza ematen duen erakundea, prestakuntza egin edo

amaitu den data eta aren iraupena, ordutan eta/edo kreditutan, adierazi beharko dira.

Egiaztagiriak kreditu kopurua soilik adierazten badu, ordu baliokidetasuna zehaztu gabe, kreditu bakoitzeko 25 ordu zenbatuko dira.

Ez dira baloratuko iraupena dokumentu bidez egiaztatu ezin zaien prestakuntza-jarduerak.

12.2.7.- Euskararen ezagutza egiaztatzea. Gehienez 7 puntu izango ditu.

Puntuazioa honako hau izango da:

Euskara:

- C1 ezagutza-maila (gaitasun-maila): 5 puntu.
- C2 ezagutza-maila (gaitasun-maila): 2 puntu.

12.2.8.- Beste hizkuntza batzuen ezagutza egiaztatzea. Gehienez 3 puntu izango ditu.

Atal honetan gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira.

Hizkuntzen ezagutza egiaztatzea baloratuko da, baldin eta egiaztatutako maila hautaketa-prozesuan parte hartzeko nahitaezko betekizuna ez bada. Inola ere ezingo da merezimendu gisa baloratu sarbide-betekizun bat betetzen dela egiaztatzeko erabilitako hizkuntza-maila.

Hizkuntza-ezagutzak titulu, ziurtagiri ofizial edo aplikatzekoa den araudiaren arabera onartutako egiaztagiri baliokide baten bidez egiaztatu beharko dira.

Ez da berariazko probarik egingo merezimendu gisa alegatutako hizkuntza-ezagutzak egiaztatzeko.

Hizkuntza berari dagokion ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten bada, egiaztatutako mailarik altuena soilik baloratuko da.

Puntuazioa honako hau izango da:

Ingelesa:

- C1 ezagutza-maila (gaitasun operatibo eraginkorra): puntu 1.
- C2 ezagutza-maila (gaitasun-maila): 1,5 puntu.

Frantsesa:

- B2 ezagutza-maila (ezagutza aurreratuak): 0,5 puntu.
- C1 ezagutza-maila (gaitasun operatibo eraginkorra): puntu 1.
- C2 ezagutza-maila (gaitasun-maila): 1,5 puntu.

Hizkuntza desberdinei dagozkien puntuazioak metatu ahal izango dira, atal honetan gehienez 3 puntu lortu arte.

Hizkuntza-tituluak edo -ziurtagiriak izateko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

13. – EMAITZEN ARGITARAPENA

13.1 Oposizio-lehiaketaren emaitza eta kalifikazio guztiak www.euskalmet.euskadi.eus webgunean argitaratuko dira.

13.2 Oposizio-faseko ariketen emaitzak amaitu eta argitaratu ondoren, izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

13.3 Alegazio guztiak jaso ondoren, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakia Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko da. Ebazpen horretan aurkeztutako alegazioak hartuko dira kontuan, eta alegazio horiei erantzuna eman zaiela ulertuko da; hau da, ez da banakako erantzunik emango.

13.4 Euskalmetek 3 egun balioduneko epea izango du, izangaiek aurkeztutako alegazioen eta egindako ariketen emaitzei buruzko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, lehiaketa-fasean alegatutako merezimenduen puntuazioa argitaratzeko.

Balorazioarekin ados ez badaude, izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute alegazioak aurkezteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Era berean, Euskalmetek 3 egun balioduneko epea izango du alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik, balorazioen behin betiko erabakia argitaratzeko.

13.5 Ariketa guztiak eta lehiaketa-fasea amaitu ondoren, Euskalmeteko zuzendariaren ebazpen bidez, proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko da webgunean, bakoitzak lortutako puntuazioak adierazita eta guztizko puntuazioaren araberako hurrenkeran sailkatuta.

13.6 Behin betiko emaitzen ebazpenaren aurka, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.ko Zuzendaritzan, hamar (10) egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko da, hautaketaeuskalmet@lksnext.com helbidearen bidez edo Euskalmeten egoitzan.

Zuzendaritzak, Epaimahai Kalifikatzailearen txostena jaso ondoren, arrazoitutako ebazpena emango du hamabost (15) egun balioduneko epean, erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta ebazpena www.euskalmet.euskadi.eus webgunean argitaratuko du. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, erreklamazioa ezetsitzat joko da.

Erreklamazio hori aurkeztea aukerakoa da, eta ez du eragotziko, ezta baldintzatuko ere, 20. oinarrian aurreikusitako ekintza judizialak gauzatzea.

14. - LANPOSTUEN ESLEIPENA

14.1 Eskaintzen diren lanpostuak interesdunek eskatuta esleituko dira, hautaketa-prozesuan lortutako hurrenkeraren arabera, betiere lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzerako ezarritako baldintza objektiboak betetzen badituzte.

14.2 Berdinketarik gertatuz gero, hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

14.2.1 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuz, hautaketa-prozesuaren amaieran puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hautagaien gaitasun-berdintasuna dagoela ulertuko da. Hau da, proba guztiak egin eta baloratu ondoren eta, hala badagokio, dagozkien merezimenduak batu ondoren berdinketa gertatzen bada.

14.2.2 Emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den kidego, eskala, aukera eta ordainsari-maila horietan emakumeei lehentasuna emango zaie. Hala ere, neurri hori ez da aplikatuko horretarako arrazoiak daudenean, baldin eta arrazoi horiek ez badira sexuagatiko diskriminatzaileak; esaterako, beste hautagaia enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.

14.2.3 Oposizio-fasean lortutako puntuaziorik handiena.

14.2.4 Lehiaketa-faseko atal bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, oinarri espezifikoetan adierazitako hurrenkeraren arabera.

15. DOKUMENTZAIOA AURKEZTEA

Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan, hiru (3) egun naturaleko epea emango da honako dokumentu hauek aurkezteko:

15.1.- ESKATUTAKO AGIRIAK.

Hautatutakoen behin betiko zerrendan agertzen diren eta kontrataziorako proposatutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, deialdian eskatutako gaitasun-baldintzak eta gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko:

15.1.1 NANaren fotokopia.

15.1.2 Atzerriko izangaiei Administrazioak jakinarazpen bat bidaliko die, eta bertan adieraziko zaie, beren egoeraren arabera, nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

15.1.3 Zinpeko adierazpena edo hitzematea, honako hauek adieraziz: eginkizun publikoak betetzeko desgaituta ez egotea; Administrazio Publikoetako edozeinen zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita edo kaleratuta ez egotea; eta Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun- eta bateraezintasun-arrazoietako batean ere ez egotea.

15.1.4 Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko adierazpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren estatuan eginkizun publikoak betetzeko diziplina-zehapenik jaso ez dutela edo zigor penalik ezarri ez dietela adierazteko.

15.1.5 Mediku-ziurtagiria. Deialdiaren oinarri hauetan zehazten den bezala, ziurtagiri horren bidez, interesdunak egiaztatu beharko du ez duela dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisikorik.

15.1.6 Merezimenduak. Lehiaketa-fasean alegatutako merezimenduen jatorrizko dokumentazioa edo fotokopia konpultsatua.

Oinarri honetako aurreko puntuen arabera aurkeztutako dokumentuak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroak sortu, antolatu eta funtzionatzeari buruzko 72/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Fotokopia konpultsatuak baliozkoak izan daitezen, konpultsa egin den data, konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANa eta irakurtzeko moduko sinadura agertu beharko dira.

Hautagairen batek ezin baditu aurreko dokumentu guztiak behar bezala egiaztatuta aurkeztu, Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliz egin ahal izango du, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

15.2.- AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

Aurreko dokumentuak hiru (3) eguneko epean aurkeztu beharko dira, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Dokumentazioa Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziaren egoitzan aurkeztu ahal izango da, edo bide telematikoz, dokumentazio hori hautaketaeuskalmet@lksnext.com helbidera bidalita, erakundeak ondoren jatorrizko agiriak eskatu ahal izateari kalterik egin gabe, haien egiazkotasuna egiaztatzeko.

15.3.- DOKUMENTAZIORIK EZ AURKEZTEA.

Adierazitako epearen barruan dokumentazioa aurkezten ez dutenek, ezinbesteko arrazoirik ezean, ezingo dute kontrataturik izan. Era berean, aurkeztutako dokumentazioaren arabera laugarren oinarrian ezarritako betekizunetakoren bat betetzen ez badute, edo lanpostuaren eginkizunak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko edo psikikorik ez badute, ezingo dute kontrataturik izan.

Kasu horietako edozein gertatzeak egindako jarduketa guztiak baliogabetzea ekarriko du, izangaiak eskabidean datu faltsuak adierazteagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Halakoetan, Epaimahaiak kontratazio-proposamen osagarria egingo du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera dagokion izangaiaren alde. Horretarako, aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarrengatik hutsik geratu diren lanpostuen kopuru bera hautatuko du Epaimahaiak.

16. - LANPOSTUAZ JABETZEA

Dokumentazioa aurkezteko epea amaitu ondoren, gehienez ere 3 egun balioduneko epean, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako zuzendariak hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen izendapena proposatuko du, eskainitako lanpostu guztiak bete arte, lortutako azken puntuazioaren arabera.

Hautatutako pertsonaren batek lanpostuari uko egiten badio lanpostuaz jabetu aurretik, eskaintza zerrendako hurrengo pertsonari egingo zaio. Ebazpen horretan zehaztuko da lanpostuan hasteko data.

Epaimahaiak 45 egun balioduneko epea izango du lan-kontratua formalizatzeko, lanpostuan hasteko data zehazten duen ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ezarritako epearen barruan lanpostuaz jabetzen ez direnek, ezinbesteko arrazoirik ezean, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziako lan-kontratudun langile izateko eskubide guztiak galduko dituzte, deialdi honetatik eratorritakoak.

Halakoetan, Epaimahaiak kontratazio-proposamen osagarria egingo du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera dagokion izangaiaren alde. Horretarako, hutsik geratu diren lanpostuen kopuru bera izendatuko du hautatutzat

17. - PROBALDIA

Probaldia sei (6) hilabetekoa izango da. Hautatutako pertsonaren batek probaldia gainditzen ez badu, Epaimahaiak hurrengo izangaiaren kontratazioa proposatuko du, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Horretarako, hutsik geratu diren lanpostuen kopuru bera izendatuko du hautatutzat.

Probaldia gainditu ondoren, izangaiak Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.ko lan-kontratudun langile izaera eskuratuko du.

18. - LAN POLTSA ERATZEA

Lanposturik lortu ez duten baina hautaketa-prozesu osoan gutxienez 50 puntu lortu dituzten eskatzaileak Euskalmeteko lan-poltsetan sartuko dira, eskabidea aurkeztu duten kategoria berean.

Euskalmetek deialdi honetako lanpostuetan beste lanpostu huts batzuk bete behar baditu, lan-poltsako langileei deituko zaie lehentasun-hurrenkera zorrotzaren arabera, 1. oinarrian adierazitako kontratazio-modalitatearen arabera lan-kontratudun izaeraz hutsik dagoen lanpostua betetzeko.

Nolanahi ere, deialdi honetarako egiaztatutako sarbide-betekizunak betetzen direla hartuko da kontuan, eta ez geroago egiaztatutakoak, bai egiaztatutako esperientziari dagokionez, bai gainerako betekizun edo merezimenduei dagokienez.

Lan-poltsaren lehentasun-hurrenkera ez da aldatuko poltsa argitaratu eta lehenengo urtean zehar.

19. - DATUEN BABESA

Datu pertsonalak «Giza Baliabideak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, honako arau hauek betez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Tratamenduaren arduraduna: Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: langileen kudeaketa. Langileen espedientea. Lan-bizitza. Administrazio-egoerak. Ordutegi-kontrola. Bajak. Ezintasunak. Bateraezintasunak. Prestakuntza. Prestakuntza-planak. Pentsio-planak. Gizarte-ekintzaren kudeaketa. Laneko arriskuen prebentzioa. Nominen igorpena. Jarduera sindikalaren kudeaketa.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko, interesdunak hala eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko eta aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dute, bai eta informazio gehigarrian jasotako gainerako eskubideak baliatzekoa ere.

20. - DEIALDIAREN AURKAKO ERREKURTSOAK

Deialdiaren, haren oinarrien eta haren jardunetik nahiz Epaimahaien jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango dute interesdunek. Aurkaratzeko kasuak eta bideak urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, ezarritakoak izango dira.

20.1 Oinarri hauen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.ko Zuzendaritzan, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar (10) egun balioduneko epean.

Prozesuko egintzen aurka, berriz, 10., 11., 13.2, 13.4 eta 13.6 oinarrietan aurreikusitako erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira, oinarri horietan ezarritako epeen barruan. Erreklamazio horiek aukerakoak dira.

20.2 Oinarriak eta hautaketa-prozesutik eratorritako egintzak lan-arloko jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira, urriaren 10eko 36/2011 Legean, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legean, aurreikusitako baldintzetan.